

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	LABORATEGIKO DATUEN TRATAMENDURAKO ETA KUDEAKETARAKO PROGRAMA INFORMATIKOAK (ZEHARKAKOA)	Iraupena	40
Kodea	UF0106		
Lanbide-arloa	KIMIKA		
Lanbide-eremua	Analisia eta kontrola		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Analisi kimikoa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Kalitatea laborategian (Zeharkakoa)	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Laborategiko kalitatearen eta jardunbide onen kontrola (Zeharkakoa)	Iraupena	50
	Segurtasun-neurriak eta ingurumeneko neurriak laborategian aplikatzea (Zeharkakoa)		40

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0052_3 LABORATEGIKO JARDUERA ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA, PROZEDURA ETA ARAU ESPEZIFIKOAK APLIKATUZ gaitasun-ataleko LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin, datu informatikoen tratamenduari dagokionez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Lortutako emaitzei programa informatikoak aplikatzea, eta datuen tratamendu estatistikoa egitea.

- EI1.1 Laborategian lortutako emaitzei oinarritzko kontzeptu estatistikoak aplikatzea.
- EI1.2 Esangura-saiakuntzak egitea, eta bi laginen edo gehiagoren zehaztasuna eta doitasuna alderatzea.
- EI1.3 Konfiantza-tarteen kontzeptua definitzea, eta haien aplikazioa azaltzea.
- EI1.4 Laborategiko datuen tratamendu estatistikorako eta kudeaketarako programa informatikoak erabiltzea.
- EI1.5 Analisi-tresnak ordenagailu-programen bidez kontrolatzeko gailuak identifikatzea, eta egokiena erabiltzea.

Edukiak

1. Laborategiko aplikazio informatikoak.

- Ordenagailuaren alderdi materialak eta logikoak
- Ofimatika-softwarea: oinarritzko kontzeptuak
- Kudeaketa dokumentaleko oinarritzko kontzeptuak laborategi kimikoari aplikatuta.
- Dokumentuak editatzea, berrikustea, gordetzea, zaharkituak kontrolatzea eta artxibatzea.

2. Laborategiko kudeaketa-programak erabiltzea.

- Datuen tratamendu estatistikorako.
- Kudeaketa dokumentaleko softwarea laborategiari aplikatuta.
- Datu-basea erabiltzea, produktu kimikoak kudeatu eta identifikatzeko.
- Software teknikoak: - prozesuen kontrol estatistikorako programak.

3. Laborategiko antolamendu informatikoa.

- Produktu kimikoen kudeaketa eta identifikazioa: sarrerak (erreaktiboak, baliabide bibliografikoak, arautegiak), transformazioak (erreaktiboan eta laginen jarraipena) eta irteerak (hondakinak eta horien kudeaketa)
- Txostenak erredaktatzea eta analisiaren dokumentazioa artxibatzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagokion probak gainditu izana.

- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Analisi kimikoa